# D.2.4. *BESTE JARDUERA BATZUK*

## D.2.4.1. **Martiartuko Dorrea (Erandio)**

Zuzendaritza: Agustin Azkarate Garai-Olaun
Finantziazioa: Erandioko Udala

# D.2.4. *OTRAS ACTIVIDADES*

## D.2.4.1. **Torre de Martiartu (Erandio)**

Dirección: Agustín Azkarate Garai-Olaun
Financiación: Ayuntamiento de Erandio

*Analysis of the constructive evolution of Martiartu Tower, carried out in accordance with stratigraphic criteria. The sequence is divided into six principal sections (the oldest being a defensive tower from the end of the 14th century) corresponding to the diverse historical events affecting the proprietors, which are reflected in the various uses made of the building in accordance with the needs of each specific moment.*

### *Arazoa eta interbentzioaren arrazoiak*

Bizkaiko historiaren barruan garrantzi handi izan duen arren, Martiartuko dorreak ez du merezi duen tratamendu historiografikoa jaso, monumentuaren pisua handiagoa izan delako, agian, bere nortasun historiko bereziarena baino.

Izan ere, XX. mendean bideratu diren ikerketa lanetan ikus daitekeenez, arkitektura elementu batzuen azterketa estilistikotik abiatuta, Aro Gotiko beranteko eraikinaren irudi uniformea, monolitikoa ia-ia, bultzatu dute, eta irudi horrek ez du eraikinaren errealitate estratigrafikoa islatzen. Dorreari buruko ikerketa hauek, ugari izan diren arren, ez dute eraikinaren historiaren diskurtsoaren eta eraikinaren eraikuntzaren bilakaeraren arteko mihiztadura egokia lortu.

Dorrea aztergai bilakatzeko zentzugabekeria izan dute lan hauek hasierako behaztopa harri, hartaz mintzo den dokumentazio idatzi guztira jo dute, alde bat utzirik eraikinaren *gorputzak* eskaintzen duen zuzeneko erreferentzia.

Metodologia estratigrafikoa bideratuta baino ez dugu eraikinaren eraikuntza errealitatea *(gorputza)* ezagutuko. Azterketa eta erregistro zehatzak bideratuta baino ez dugu dorrearen eta eraiki zuen familiaren historia ezagutzeko aukerarik izango.

Ikuspegi honetatik ekin genion Martiartuko dorrearen ikerketari, 2002. urteko azken lauhilabetekoan. Erandioko Udalak zabaldu zion bidea ekimenari, eraikinaren jabea ere baden aldetik, agindu zigun lan. Agustin Azkarate buru den talde horretako kideak gara gu guztiok.

Aparte artean esan dezagun, Udalak agindu zigun azterketa arkeologikorako proiektuak San Antonio ermita hartzen zuela bere lan-esparruan (dorrearen inguruetan dago eliza hau). Ikerketa lan hori, orain aurkezten ari garen lanaren paraleloan bideratu genuen guk. Hala eta guztiz ere, ermita hori orain berri eraberritu dutelarik, ikerketa lanek ez dute emaitza aipagarririk eskaini eta, horrenbestez, haren aurkezpen laburrari ekin orde, txosten arkeologikora berera jo ahal izango interesatuak hari buruzko datuak lortzeko.

### *Problemática y motivación de la intervención*

A pesar de su relevancia en el contexto de la historia de Bizkaia, la torre de Martiartu no ha recibido el tratamiento historiográfico que merece, quizá porque ha prevalecido lo monumental por encima de lo singular de su personalidad histórica.

De hecho, se observa cómo las investigaciones llevadas a cabo a lo largo del siglo XX, a partir del análisis estilístico de ciertos elementos arquitectónicos, han creado la imagen uniforme, casi monolítica, de un edificio tardogótico, que no guarda correspondencia con la realidad estratigráfica del mismo. Estos estudios sobre la torre, por más que han sido profusos, no han conseguido una adecuada imbricación entre el discurso histórico y el discurso de la evolución constructiva del edificio.

Se ha incurrido en el contrasentido de elegir la torre como objeto de estudio, acudiendo a toda la documentación escrita que nos habla de ella, ignorando la referencia directa constituida por la *corporalidad* del edificio.

Únicamente con el empleo de la metodología estratigráfica se puede conocer la realidad constructiva (la *corporalidad*) del edificio. Sólo en la medida en que se realiza un análisis y registro rigurosos se está en disposición de conocer la historia de la torre y la de la familia que la erigió.

Con esta perspectiva se decidió afrontar el estudio de la torre de Martiartu, realizado a lo largo del último cuatrimestre del año 2002. La iniciativa promotora corrió a cargo del Ayuntamiento de Erandio, a la sazón propietario del edificio, que nos encargó la elaboración del trabajo.

Haciendo un inciso, cabe señalar cómo, dentro del proyecto de estudio arqueológico encargado por el ayuntamiento, quedaba incluido el análisis de la ermita de San Antonio (templo situado en las inmediaciones de la torre). Dicho análisis, fue realizado por nosotros paralelamente al aquí relatado. Sin embargo, al encontrarse dicha ermita restaurada en tiempos recientes, su investigación ha sido escasamente fructífera y por ello, en lugar de proceder a su reseña, nos remitimos al propio informe arqueológico para obtener más datos.

Dorrearen dokumentazio geometrikoari begira, haren berritxuratze fotogrametrikoa bideratu genuen.

Tresna hauek berak erabili ziren dorrea eratzen duten paramentuen azterketa arkeologikoan, eta eraikuntzaren xehetasun xeheenen azterketa zehatzena bideratu ahal izan genuen horrenbestez. Era berean, zundaketa bat egin genuen barruan, irakurketa estratigrafikoaren garaian azaldu zitzaizkigun ezezagun batzuk zertan ziren argitzeko.

## *Martiartuko dorrearen historia eta eraikuntzaren bilakaera*

### *I. Eraikuntza Aldia: Lehen dorrearen eraikuntza (XIV. mende bukaera)*

Lehen dorrea oin angeluzuzeneko eraikina zen; 10 metro (I.-H.) eta 11 metro (E.-M.) ziren haren neurriak. Egun, 10,5 metroko garaieraraino kontserbatu da, baina hego, ekia eta mendebaldeko paramentuetan bakarrik, arras galdu baita iparraldekoa (barrualdean eginiko zundaketetan azaldu den zimentazio atala izan ezik, 1. UE. Metro betekoa da hormaren lodiera.

Hare-harrian landuriko sillarrixka erregularrak erabili zituzten obra hartan; ilera erregularretan antolatu zituzten harriak, kare eta hondar ugariko kareore horiz oratuak (2. U.E.).

Fabrika honetan bi metxinal ilara ageri dira (8. eta 14. U.E.); obran eginak dira, eki eta mendebaldeko paramentuetako gatzarirako metxinalak bezala (101., 99. U.E.). Solairuen arteko zolatari eusten zioten gatzari hauek.

Oso elementu gutxik iraun du egun arte lehen dorre hartatik. Uste izatekoa da eraikinak kadalsoa, zurezko patin-eskailera eta egun arrastorik utzi ez dute bao batzuk edukiko zituela.

Lope Garcia de Salazarrek bere *Las Bienandanzas e Fortunas* kronikan adierazi zuen bezala, Martín Ortiz de Martiartuk eraiki zuen dorrea. 1415ean dokumentatu zen jaun haren heriotza; beraz, XIV. mende bukaeran edo XV. mende hasieran eraikiko zuten dorre hura.

### *II. Eraikuntza Aldia: Lehen dorrearen suntsipena eta abandonua (XV. mendea, 1472)*

Eraikuntza aldi honetan, dorrea eraitsi zuten uneari buruzko informazioa ematen dizkiguten bi testigantza ditugu (29. eta 44. U.E.).

«Diego Peres de Martiartu vesino del lugar de Santa Maria de Erandio que es en eso nuestro señorio e condado de Vizcaya nos fiso rrelacion (...) que podia aver dies e seys años (...) que habiendo ciertas diferencias en ese dicho nuestro condado entre los que estavan e eran de la opinyon del señor rrey don Enrique nuestro hermano e de los que aquello no seguyan e dis que vno

Para la documentación geométrica de la torre se efectuó su restitución fotogramétrica.

Estas mismas herramientas fueron empleadas para el examen arqueológico de los paramentos que componen la torre, lo cual permitió el exacto análisis de los más mínimos detalles constructivos. Asimismo, se realizó un sondeo al interior para despejar algunas incógnitas que se plantearon a partir de la lectura estratigráfica.

## *Evolución histórico constructiva de la torre de Martiartu*

### *Fase I: Construcción de la torre primitiva (finales del siglo XIV)*

La torre primitiva era un edificio de planta rectangular, de 10 m (N.-S.) por 11 m (E.-W.). Actualmente, se conserva hasta una altura de 10,5 m, pero sólo en los paños S., E. y W., habiéndose perdido por completo al N. (exceptuando parte de la cimentación que ha sido localizada en los sondeos realizados en el interior, U.E. 1. El grosor de su muro es de 1 m.

Se trata de una obra de sillarejo regularizado en arenisca, organizado en hiladas también regulares, con argamasa de color amarillo, de cal y abundante arena (U.E. 2).

Esta fábrica cuenta también con dos hileras de mechinales (U.E. 8 y 14) realizadas de obra, al igual que los mechinales para vigas maestras de los paños E. y W. (U.E. 101, 99), los cuales cumplían la función de sostener la solera entreplantas.

Apenas conservamos elementos originales de la primitiva torre, aunque podemos presumir que el edificio contaría con un cadalso, un patín de madera y diversos vanos de los cuales no ha quedado vestigio en la actualidad.

Lope García de Salazar, en su crónica de *Las Bienandanzas e Fortunas* señala cómo Martín Ortiz de Martiartu fue quien construyó la torre. La muerte de éste se documenta en 1415, con lo cual, deducimos que la construcción de esta torre tuvo lugar a finales del siglo XIV o a principios del siglo XV.

### *Fase II: Destrucción y abandono de la torre primitiva (siglo XV, 1472)*

En esta fase se atestiguan dos cortes (U.E. 29 y 44) que nos informan del momento en que la torre fue destruida.

«Diego Peres de Martiartu vesino del lugar de Santa Maria de Erandio que es en eso nuestro señorio e condado de Vizcaya nos fiso rrelacion (...) que podia aver dies e seys años (...) que habiendo ciertas diferencias en ese dicho nuestro condado entre los que estavan e eran de la opinyon del señor rrey don Enrique nuestro hermano e de los que aquello no seguyan e dis que

de los que seguian la opinion de dicho rrey don Enrique (...) fue Ochoa Ortiz de Gueches su padre e que a cabsa dello los de la opinion contraria que casi era todo el condado (...) quemaron las torres e casas fuertes de Martiartu e Guecho que fueron del dicho su padre e de doña María Lopes de Martiartu su muger (...)». (Simancasko Artxibu Nagusiko dokumentua, RGS, 134. or., E. Cooper-en *Castillos señoriales de Castilla. Siglos xv y xvi,* obran transkribatua, 1982, I. Lib. 561. or.).

1488ko data du dokumentu honek; halatan, aipatzen diren hamaseiak («dies y seys») kenduz gero lortuko dugu dorrea suntsitu zuten urtea, 1472.

vno de los que seguian la opinion de dicho rrey don Enrique (...) fue Ochoa Ortiz de Gueches su padre e que a cabsa dello los de la opinion contraria que casi era todo el condado (...) quemaron las torres e casas fuertes de Martiartu e Guecho que fueron del dicho su padre e de doña María Lopes de Martiartu su muger (...)». (Documento del Archivo General de Simancas (RGS), Fol. 134, trascrito en Cooper, E., *Castillos señoriales de Castilla. Siglos xv y xvi,* 1982, vol. I, p. 561).

Este documento, está fechado en 1488, de tal forma que si restamos los citados «dies y seys» años, obtenemos que la fecha en que la torre fue destruida es 1472.




Martiartuko Dorrea (Erandio). Dorrea berreraiki zen unearen berritxuratze hipotetikoa (III. Eraikuntza Aldia). Dorre zaharraren fabrika eraikin berriaren barruan geratu zen.
2. Lehen dorrearen zimentazioa. Jatorrizko fabrikaren (ezker eta behealdean) eta berreraikiaren (goi-ezkerraldean) arteko iraunkortasunaren jarraipena adierazten du lerro gorriak.
3. Irakurketa estratigrafikoa. Landa lana. 4. Berritxuratze fotogrametrikoa. Argazkigintza.

Torre de Martiartu (Erandio). Recreación hipotética del momento en que se reconstruye la torre (fase III). Obsérvese cómo la fábrica del antiguo torreón queda embutida con la nueva edificación. 2. Cimentación de la torre primitiva.
La línea roja es la solución de continuidad entre la fábrica original (izquierda y abajo) y la reconstruida (arriba a la derecha). 3. Lectura estratigráfica. Trabajo de campo.
4. Restitución fotogramétrica. Captura fotográfica.

### *III. Eraikuntza Aldia: Dorrearen berreraikuntza (XVI. mende hasiera)*

Berreraiki egin zuten dorrea aldi honetan. Eraikin berriaren neurriak lehen dorrearenak baino dezente handiagoak ziren: 15,5  14,5 m oinean, 16,5 m altueran (lehenak baino sei gehiago) eta 2 metroko lodiera oinarriko hormak (metro betekoa zuen lehen dorreak). Hormak ongi eskuairaturiko harlanduz taxutu ziren; harriak luzeka paratu ziren gehienak, zeharka ere gutxi batzuk, eta pikotxaz tailatu ziren guztiak. Harlanduen neurria ez zen bakarra izan: 30  20 cm eta 80  40 cm bitartekoa zen, hain zuzen ere. Lehen dorrearen fabrikaren hondarrak erabili ziren eraikin honetan.

Aldaketa batzuk bideratu zituzten dorreko lehen oinaren barne banketan. Zolata maila metro bete inguru goratu zuten, kontserbaturiko metxinalek frogatzen duten bezala (10. U.E.). Lau bao berri egin ziren, haietako bi argizuloak ziren, berdin-berdinak biak, eta hegiaz hornituak; eki eta mendebaldeko paramentuetan daude, bata bestearen aurrean. Mendebalean dago beste bat: pertsona baten neurrira egokitzen den pasabide estu bat luzatzen da haren ahotik. Ekialdean dago laugarrena, 1,4 metro da zabal eta 2 metro garai, eta kanoi-ganga bat ageri da haren muturrean.

Eraikin berriak jatorrizko dorretxearen izaera militarra sendotu zuen inolaz ere, eta gerra egiteko era berrietara moldatu zen. Hormak askoz sendoagoak ziren, eta urriagoak eraikinaren barnealdera argia ematen duten baoak. Arestian aurkeztu dugun bezala, 1488. urte aldera jasoko zuten, II. Aldiari buruzko aurkezpenean azaldutako dokumentuaren irakurketak frogatzen duen bezala.

### *IV. Eraikuntza Aldia: Dorrearen eraberritzea eta luzatzea (XVI. eta XX. mende bitartean)*

Une batean, zergatik ez dakigu (nahita eraginiko lur jotzeren bat edo, besterik gabe, hormen bertan behera erortze bat; 226. U.E.), dorrearen burualdetik desagertu ziren HMko angeluari zegozkion hormak.

Gertaera honen ondotik, obra berri baten arabera eraberritu zen barru guztia; lan hauen arabera, bao berri bat txertatu zen horma batean (mendebaldekoan, 28. U.E.), oineko gainerako leihoak baino neurri txikiagoz. Egitura hau (65. Jarduera) argi eta garbi bereizten da inguruan duen horma zaharrenetik (55. U.E.), aurreko ilaren isodomia eten egiten baitu hegoa eta mendebaldeko paramentuetan, gakoen bitartez. Bao berri honi dagokion solairu maila ordura arteko berbera da.

Aipatu ditugun konponketa lanen ondoko momentu batean aldarazi zen barne banaketa. Halatan, sei solairu bereizi ziren, hau da, ordura arte zeudenak baino bi gehiago.

Eraikinerako sarbidea berreskuratu zen, hegoaldetik. Arku berri bat, zorrotza, eratu zuten lehen oineko irekiduraren errematerako, luzaeran sarrarazitakoen

### *Fase III: Reconstrucción de la torre (principios del siglo XVI)*

En esta fase la torre se reconstruye. Las dimensiones del nuevo edificio superan con bastante diferencia las de la torre primitiva; 15,5  14,5 m en planta, 16,5 m de altura (seis más que la primitiva) y 2 m de grosor de muro en la base (frente a 1 m de la torre primitiva). La fábrica (U.E. 55) es de sillería bien escuadrada colocada a soga y con algún tizón, siendo su talla a picón y la dimensión de los sillares variable, entre los 30  20 cm y los 80  40 cm. Esta fábrica aprovecha para su construcción los restos de la fábrica del torreón original.

Se produce un cambio de la distribución de la primera planta de la torre. Todo el nivel de solera sube aproximadamente un metro, como queda atestiguado por los mechinales conservados (U.E. 10). Se ejecutan cuatro nuevos vanos, dos de ellos son vanos de luz con derrame de alfeizar y son completamente idénticos, se encuentran uno frente al otro en los paños E. y W. Otro de ellos, situado al W., tiene un hueco que se prolonga hasta formar un estrecho pasillo adaptado al tamaño de una persona. El último se sitúa al E., tiene una anchura de 1,4 m y una altura de 2 m y esta rematado por una bóveda de cañón.

La nueva construcción refuerza todavía más su carácter militar, adaptándose a las necesidades de las nuevas formas de hacer la guerra. Los muros son mucho más gruesos y son escasos los vanos que dotan de luz al interior del edificio. Como expusimos con anterioridad, cabe pensar que este edificio fue erigido en fechas próximas a 1488, como lo demuestra la lectura del documento reseñado en la fase II.

### *Fase IV: Reparación y recrecido de la torre (entre los siglos XVI y XX)*

En cierto momento, desconocemos la razón (quizá una destrucción intencionada o, sencillamente, un derrumbe de los muros; U.E. 226) desaparecen del remate de la torre las paredes correspondientes al ángulo SW.

Después de este hecho, se mete toda una nueva obra que reconstruye el recinto, dentro de la cual se inserta un nuevo vano (al lado W., U.E. 28), que tiene unas menores dimensiones de sus vecinos de planta. Esta obra (Actividad 65), se distingue claramente del paño más antiguo que lo rodea (U.E. 55) puesto que rompe la isodomía de las hiladas precedentes con engatillados tanto en el paño S. como en el W. El nivel de forjado con que se corresponde este nuevo vano es el mismo que existía hasta el momento.

En un momento posterior a la señalada reparación, se modifica la distribución interior. De este modo se definen seis pisos, es decir, dos más de los que había hasta el momento.

Se recupera el acceso primitivo del edificio por el S., con la introducción de un nuevo arco apuntado para rematar la abertura de la primera planta, al tiempo que

moldeko asentu-leiho berri bat ireki zuten bitartean (leiho geminatu bat zen hau, 7. Jarduera). Dorreak kanpoaldearekin lotzen zuen sarbidea (50. Jarduera), ekialdeko paramentuan, lehen oinaren altueran paratua, itxi egin zen.

Erakintza aldi honetan, etxearen funtzioa egoitza zen bete-betean, haren inguruko ohar gehiegi ezin egin badira ere. Giro eroso lasaiagoak sortu ziren, hala nola laugarren oinekoa, argi handiarekin eta asentu-leiho zabalekin. Dorrea edertasunaren ikur bilakatu nahi izan zuten eta, seguruenik, ahaide nagusien dorre zahar baten kasuan, edertasunaren idealak beraren paradigma, estilo gotikoa, berriro biziaraztea zatekeen. Horrexegatik, irakurketa estratigrafikoan banandutako eraikuntza jarduerek forma gotikoak imitatu nahi dituzten estilo-xehetasunez beterik azaltzen zaizkigu (arku zorrotzak, konopialak, matakanak eta garitoiak, latina bera, eta abar), baina arkitektura elementu askoz modernoagoak dira egiaz.

### *V. Eraikuntza Aldia: Baserri bihurtzea (XX. mende hasiera)*

Aurreko aldian goialdearen errematea bazen ere, bi oin beheratu zuten teilatua eta dorrearen beraren hormen barruan ezarri zuten. Erabileratik kanpo geratu ziren goialdeko oinean eraiki ziren asentu-leiho guztiak eta, ekia eta mendebaldeko paramentuetako kasuan, teilatuaren hustubide gisa erabili ziren (U.E. 162, 161).

Teilatuak HMan edukiko zuen bere tximinia, dorrearen barruan; bi oin beherago jaitsiz gero, garbi asko ikusi ahal izan dugu espazio hura birmoldatu egin zutela, baserriko sukalde bihurtzeko. Birmoldaketa horren araberako lanen artean ditugu ke-kanpaiaren besoak sartuko ziren metxinalak (109. eta 110. U.E.), sutondoa ezarriko zen zoruaren prestaketa (68. U.E.), neurri txikiko alasa bat (106., 107. eta 108. U.E.) eta hegoalderantz jotzen duen leihoaren asentuetan oinarrituriko harraska.

Azkenik, ukuiluaren eraldaketa da bereziki azpimarratzekoa. Hegoaldeko sarrera modu trauskilean zabaldu zen (5. eta 6. U.E.), aurreko atearen zangoa moztuz, idi-parearen igarobidea errazteko. Identifikatzen zaila da behe oin honetan dagoen metxinal kopuru horren handia, baina badakigu haietako batzuek lastategi bati eutsi ziotela (41. eta 42 U.E.), eta beste batzuek asken egituren euskarri zirela (240. eta 209 U.E.).Egitura hauen euskarriak azaldu dira zundaketetan, baita ukuiluko zoruaren arrasto batzuk ere (9. Jarduera).

Eskailera berri bat eraiki zuten ukuilua lehen oinarekin komunikatzeko, teilatuperaino iritsi gabe, eskuzko eskailera edo zurubi batez iristen baitziren hartara. Mendebaldeko hormaren barrualdeko atalari itsatsia eta zentratua zegoen eskailera hura.

Azkenean, erreferentzia puntua galdu zuen multzo hark bertako eskema geopolitikoan. Martiartuko maiorazkoak zatiezin iraungo zuen, baina leinuburuen onda-

se abre una nueva ventana de asientos similar a las introducidas en el recrecido (ésta tiene la particularidad de ser una ventana geminada; Actividad 7). El acceso que comunicaba la torre con el exterior (Actividad 50), colocado en el paño E. a la altura de la primera planta, se amortiza.

En esta fase, la función del edificio es claramente residencial aunque no se pueden hacer grandes observaciones al respecto. Se crean entornos más confortables, como el de la cuarta planta, con mucha luz y amplias ventanas de asiento. Se quiere hacer de la torre algo bello y, probablemente, el ideal de lo bello en una antigua torre banderiza consista en la recreación de la imagen de lo medieval recurriendo precisamente a su paradigma, el estilo gótico. Es por ello, que vemos como las actividades constructivas individualizadas en la lectura estratigráfica, contienen detalles estilísticos (como arcos apuntados, conopiales, los matacanes y garitones, el propio patín, etc.) que pretenden imitar las formas góticas, cuando, en realidad, se trata de elementos arquitectónicos mucho más modernos.

### *Fase V: Conversión en caserío (principios del siglo XX)*

El tejado, que anteriormente remataba el recinto en lo más alto, desciende dos plantas, colocándose en el interior de los muros de la propia torre. Quedan fuera de uso todas las ventanas de asiento construidas en la planta superior, que son utilizadas, en el caso de los paños E. y W., como desagües del propio tejado (U.E. 162, 161).

El tejado tendría su chimenea en el ángulo SW., al interior de la torre, donde, si descendemos dos plantas, observamos que ha sido remodelado el espacio para convertirlo en la cocina del caserío. Dentro de esta remodelación encontramos los mechinales para introducir los brazos de la campana de humos (U.E. 109, 110), la preparación para el hogar (U.E. 68), una alacena de pequeñas dimensiones (U.E. 108, 106, 107) y un fregadero apoyado sobre los asientos de la ventana que da al S.

Por último, cabe destacar la transformación de la cuadra. El acceso inferior por el S. se amplia toscamente (U.E. 5 y 6) cortando la jamba del anterior acceso para permitir el paso a la yunta de bueyes. El gran número de mechinales que horadan las paredes de esta planta baja son de difícil identificación, pero sabemos que algunos de ellos sostuvieron un pajar (U.E. 41 y 42), mientras que otros conformaban las estructuras de los pesebres (U.E. 240, 209). En los sondeos se han localizado apoyos para algunas de estas estructuras, así como restos del suelo de la cuadra (Actividad 9).

Se construye una nueva escalera que comunica la cuadra con la primera planta, sin llegar hasta la bajo cubierta a la cual se accede mediante una escalera de mano. Aquella escalera se sitúa pegada al interior del paño W., centrada con respecto a él.

Definitivamente, el conjunto pierde su carácter de punto de referencia dentro del esquema geopolítico local. El mayorazgo de Martiartu seguirá indivisible pero

rearen zati gero eta murritzagoa izango zen aldiro-aldiro. Izan ere, ikusi dugun bezala, esku gutxi batzuetara biltzen ari baitziren, ondozka zetozen ezkontzen poderioz, jatorri oso desberdina zuten maiorazkoak eta jabetzak. Prozesu horren ondorioz, saldu eta laborari familia baten esku geratu zen eraikina.

cada vez representará una parte más reducida del patrimonio de los cabeza de linaje, puesto que, como hemos visto, los sucesivos enlaces matrimoniales van acumulando en pocas manos mayorazgos y posesiones de muy diverso origen. Este proceso supuso la enajenación y venta definitiva del edificio a una familia campesina.

### *VI. Eraikuntza Aldia: Dorrearen eraberritzea (xx. mendearen bigarren erdialdea)*

Baserriko jabeak, beratako laborariak eta biztanleak, Bilboko Udalari saldu zioten jabetza, eta eraberritze lan batzuen bitartez ekin zion honek eraikinaren monumentu izatearen berreskuratzeari. 1948an gertatu zen salmenta eta urte gutxi batzuk geroago hasi ziren eraberritze lanak, 1950.urteetan.

Une hartan, hustu egin zuten hitzez hitz eraikina, kanpoko hormak baizik ez ziren zutik gelditu. Erdi Aroko dorrearen itxura berritxuratzen saiatu ziren, baina aldaketa txikien bitartez, makillaje mailakoak ia-ia. Baserriaren garaian kalte handiak jaso zituen eraikinak, alderdi estetikoan batez ere; halatan, garai hartako orbanak ezabatzea izan zen eraberritze lan haien helburu nagusia. Porlana erabili zen (194., 163., 218. eta 168. U.E.) lehengo metxinalek utzitako zulo batzuk betetzeko eta behealdeko sarreraren itxura berreskuratzeko, edo ekialdeko hormaren kanpo behealdeko angelua berritxuratzeko, oso kaltetua baitzegoen.

### *Fase VI: Restauración de la torre (segunda mitad del siglo xx)*

Los campesinos habitantes del caserío venden la propiedad al Ayuntamiento de Bilbao, el cual decide resaltar la monumentalidad del edificio iniciando unas obras de restauración. La venta se produce en 1948, mientras que la restauración se inicia pocos años después, en los inicios de los años 50.

En este momento el edificio es literalmente vaciado, sólo se dejan en pie los muros del exterior. Se intenta recrear el aspecto de la torre medieval con modificaciones mínimas, casi de maquillaje. La etapa del caserío dañó bastante la integridad del edificio, sobre todo en su aspecto estético, por lo que los trabajos de restauración se concentran en borrar las cicatrices de ese período. Se emplea el cemento (U.E. 194, 163, 218 y 168) para rellenar ciertos huecos de antiguos mechinales así como para recuperar el aspecto del acceso inferior, o para el ángulo inferior derecho del paño E. al exterior, el cual estaba muy dañado.




Martiartuko Dorrea (Erandio). Eraikuntza aldietako altxaerak.

Torre de Martiartu (Erandio). Alzados de las fases constructivas.

Zementu hura aplikatzerakoan aparejuaren gainerako tarteeetan ageri ziren silarri-ilaren itxura imitatu nahi izan zen, gezurrezko juntura-lerroen eta, areago, taila-xehetasun batzuen bitartez. Eraberritu zen unean, dorreak itxura ezin hobea ageriko zuen seguruenik, baina urteen joanean sakon aldarazi du haren morfologia eta biziki aldatu da lan haietan bideratu zen materialaren kolorea, eta egun erraz bereizten dira lan haietan ukitutako aldeak.

Garai hartan berrezarri zen gariotoietako bat, iparekialdeko angelukoa (164. eta 165. U.E.), eroria baitzen lehenago, eta berrezarri ziren, halaber, eraikinaren goialdeko matakan-errematea imitatu zuten xafla asko.

Al aplicar este cemento se trata de imitar el aspecto de las hileras de sillares del resto de aparejo mediante la impresión de líneas de junta, e incluso detalles de la talla. Es muy probable que en el momento de la restauración la torre se mostrase impecable vista desde el exterior, pero el paso de los años a alterado profundamente la morfología y el color del material con que se realizó, y actualmente se distinguen con total facilidad los puntos afectados por aquellas labores.

En este momento se recoloca uno de los garitones, el del ángulo NE. (U.E. 164 y 165), que se había caído tiempo atrás, y muchas de las placas que imitan el remate de matacanes de la zona superior del edificio.

## *Konklusioak*

Ezinezkoa da Martiartuko dorrean bideraturiko azterketa arkeologikoaren esentzia batzea. Aintzat alderdi analitikoak hartu dituenez, definizioz da lan hau bere emanaren laburpen bat eta ezin bihur daiteke etorkizuneko ulerpenen gai. Horregatik, txostenera jo dezazuen gonbidatzen zaituztegu berriro, G. Bois Erdi Aroaren adituaren epigrafe honen araberako gogoeta proposatzen dizuegun bitartean: «Lan hau ez da monografia lokal bat, ezta saio orokora bat ere. Bata bestetik aldentzen duen tartean mugitzen da eta gogoetarako elementu gisa dihardu, ideia soil batetik abiatuta: txikiaren azterketa xeheak hurbilago paratzen gaitu orokorretik urrunago baino, eta orokorra berritxuratzea zailagoa den heinean da premiazkoagoa, egoera partikularren batuketa edo gainezkatze soilarengatik beragatik» (Bois, G., «La revolución del año mil», 1991 [1989] 180. or.).

## *Conclusiones*

No es posible concentrar la esencia del estudio arqueológico efectuado en la torre de Martiartu. Éste, al centrarse en los aspectos analíticos, es, por definición, un resumen en sí mismo y no puede ser objeto de ulteriores compresiones. Por ello, nos remitimos de nuevo al informe, y proponemos en este epígrafe la reflexión del medievalista G. Bois: «Este trabajo no es una monografía local ni un ensayo general. Se mueve en la distancia que separa a una del otro y funciona como elemento de cuestionamiento, a partir de una idea sencilla: el examen minucioso de lo particular nos acerca a lo general más de lo que nos aleja, y es tanto más necesario cuanto más difícil resulta reconstruir lo general por la simple adición o yuxtaposición de situaciones particulares» (Bois, G., «La revolución del año mil», 1991 [1989], p. 180).

*Ismael García Gómez; Iban Sánchez Pinto*

## D.2.4.2. **Lendoñobarrengo San Esteban elizaren ondoko eraikina (Urduña-Orduña)**

Zuzendaritza: Alberto Plata Montero
Finantziazioa: Urduña-Orduñako Udala

## D.2.4.2. **Edificio anejo a la iglesia de San Esteban de Lendoño de Abajo (Urduña-Orduña)**

Dirección: Alberto Plata Montero
Financiación: Ayuntamiento de Urduña-Orduña

*As a result of the restoration work due to be carried out in the house adjoining the eastern side of the San Esteban de Lendoño de Abajo parish church, a study was carried out in order to identify and document the historical-constructive evolution of the building. The stratigraphic analysis identified six constructive phases, the first corresponding to two constructive projects based around a hitherto undiscovered defensive tower, whose origins date back to the late medieval period around the 14$^{th}$ and 15$^{th}$ centuries.*

San Esteban parrokia Lendoñobarren (Lendoño de Abajo, Lendoño Behekoa) herrixkan dago, Urduña-Orduñako udalerriaren barruan Ruzabal Junta osatzen duten lau herrixketako batean. Zehazkiago, hiriaren ipar-mendebaldean dago, Arbiletako San Klemente elizaren inguruetan. Parrokiari ekialdetik erantsi zitzaion

La parroquia de San Esteban, se encuentra ubicada en la aldea de Lendoño de Abajo, formando parte de las cuatro aldeas que conforman la Junta de Ruzabal, situadas en el término municipal de Urduña-Orduña, y más concretamente al noroeste de la ciudad en las proximidades de la iglesia de San Clemente de Arbileta.